**EBAZPENA, 2022KO EKAINAREN 5EKOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ DEIALDIA EGITEN BAITA ZERBITZU-EGINKIZUNEN, BEHIN-BEHINEKO ATXIKIPENAREN ETA ORDEZKAPEN BERTIKALAREN BIDEZ ALDI BATERAKO LANPOSTUAK BETETZEKO.**

**1**.- Botere Judizialaren Lege Organikoaren 527. artikuluaren arabera, lanpostu hutsak zerbitzu-eginkizunen eta ordezkapenen bidez beteko dira aldi baterako, eta 514. artikuluak, berriz, lanpostu huts bati atxikita zerbitzu aktibora behin-behinean itzultzea aurreikusten du.

**2**.- Abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuak, Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen sarrerari, lanpostuak betetzeari eta lanbide-sustapenari buruzko Erregelamendua onartzen duenak, 69., 73. eta 74. artikuluetan arautzen du zerbitzu aktibora itzultzeari, zerbitzu-eginkizunei eta ordezkapenei buruzko gaia.

**3**.- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2022ko ekainaren 7ko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko lanpostuak aldi baterako betetzeko prozedura arautzen du.

**4**.- Deialdi honen xedea da I. eranskinean adierazitako lanpostuak zerbitzu-eginkizunen, behin-behineko atxikipenaren eta ordezkapen bertikalaren bidez aldi baterako betetzea.

**5**.- Zerbitzu-eginkizuna, behin-behineko atxikipena eta ordezkapen bertikala eskatu ahal izango dituzte Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako, Laguntza Judizialeko eta Auzitegiko Medikuen kidegoetako Justizia Administrazioaren zerbitzuko karrerako funtzionarioek.

**6**.- Lanpostuak aldi baterako betetzeko prozedura Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2022ko ekainaren 7ko Aginduan xedatutakoaren arabera gauzatuko da.

7.- Eskabideak: hiru egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, www.euskadi.eus/zerbitzuak/12050 helbidearen bidez.

**8**.- Behin-behineko esleipenen publizitatea: Justiziako langileen atarian eta Justiziako web-orrian. Argitaratzen denetik hiru egun balioduneko epea emango da alegazioak egiteko.

**9**.- Behin betiko esleipenen publizitatea: Justiziako langileen atarian eta Justiziako web-orrian.

Vitoria-Gasteiz, 2022eko ekainaren 5a

Jon Arturo Uriarte Unzalu
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA

## ANEXO

| DESTINO ZENTROA | KIDEGOA | LANPOSTU/ DOTAZIOA | HERRIALDE | PROBINTZIA | HE | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ZULUP: PERTSONA BAKARREKO ORGANO MISTOAK 1 | TRAMITACIÓN | 580004/34 | GETXO | Bizkaia | 2015.01.31 | GUARDIAK |
| ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAKO ZULUP | GESTIÓN | 480040/1 | VITORIA-GASTEIZ | Araba/Alava | 2015.01.31 | |
| ZULUP 6 | TRAMITACIÓN | 580046/13 | DONOSTIA /SAN SEBASTIAN | Gipuzkoa | | |
| S.C.A.C.E. ATALA | AUXILIO | 680033/4 | DONOSTIA /SAN SEBASTIAN | Gipuzkoa | 2020.01.31 | KOMUNIKAZIO-EGINTZAK |
| BESTE ZERBITZU BATZUK ATALA | AUXILIO | 680033/18 | DONOSTIA/SAN SEBASTIAN | Gipuzkoa | 2020.01.31 | |
| ZERBITZU OROKORREN ATALA | AUXILIO | 680002/6 | IRUN | Gipuzkoa | 2020.01.31 | GUARDIAK |
| BESTELAKO ZERBITZUEN ATALA | AUXILIO | 680020/33 | VITORIA-GASTEIZ | Araba/Alava | | |
| BESTELAKO ZERBITZUEN ATALA | AUXILIO | 680020/29 | VITORIA-GASTEIZ | Araba/Alava | | |
| 2. ATALA - ZIGOR ARLOA | TRAMITACIÓN | 505102/16 | BILBAO | Bizkaia | | |
| ERREGISTRO ZIBILA | TRAMITACIÓN | 580020/1 | VITORIA-GASTEIZ | Araba/Alava | 2010.01.31 | |
| GAINERAKO SERVI. GOBERNU-BULEGOA KOMUNAK | AUXILIO | 652001/28 | BILBAO | Bizkaia | | |
| MERKATARITZA 3. zk. | GESTIÓN | 405013/9 | BILBAO | Bizkaia | | |
| MERKATARITZA 1. zk. | TRAMITACIÓN | 505013/1 | BILBAO | Bizkaia | | |
| EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ARLOKO EPAITEGIA 2. zk. | TRAMITACIÓN | 540003/11 | BILBAO | Bizkaia | | |
| EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ARLOKO EPAITEGIA 2. zk. | TRAMITACIÓN | 540003/10 | BILBAO | Bizkaia | | |
| EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ARLOKO 1 ZENBAKIKO EPAITEGIA | TRAMITACIÓN | 540003/5 | BILBAO | Bizkaia | | |
| EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ARLOKO 1 ZENBAKIKO EPAITEGIA | TRAMITACIÓN | 540003/3 | BILBAO | Bizkaia | | |
| INSTRUKZIO-TALDEA | TRAMITACIÓN | 580023/13 | VITORIA-GASTEIZ | Araba/Alava | | GUARDIAK |
| 1. INSTANTZIA 9. zk. | AUXILIO | 605003/9 | BILBAO | Bizkaia | | |
| 1. INSTANTZIA 15. zk. | TRAMITACIÓN | 505003/118 | BILBAO | Bizkaia | | |
| ZULUP: PERTSONA BAKARREKO ORGANO MISTOAK 1 | GESTIÓN | 480001/5 | AZPEITIA | Gipuzkoa | | GUARDIAK |